

7/2019 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
URRIAREN 29an EGINDAKO BILKURA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

KIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arruzubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Illarbe and., Basaburuako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
Yolanda González García and., Vianako alkatea.
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

Iruñean, bi mila eta hemeretziko urriaren hogeita bederatzian, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalerriaren eta Kontzejuek Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1º.- Aurreko bilkuraren aktaren informazioa eta onepena.
- 2º.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3º.- NUKFren Batzorde Betearazlearen saioen periodikotasuna.
- 4º.- Ordezkariek izendatzea kontseilu eta batzordeetarako.
- 5º.- Garapenerako lankidetzak.
- 6º.- Presidentearen informazioa.
- 7º.- Galde-eskeak.

Lehenik eta behin, Lehendakariak bertaratutakoak agurtu eta ongietorria eman die Batzorde Betearazleko kide gisa.

Lehendakaritzan ahalik eta modu eraikitzailean lan egin nahi duela adierazi du, elkarrizketa irekia edukiz eta aurkeztzen diren proposamen guztiei bidea emanez.

Bertaratutako guztiak toki entitateen ordezkariak direla gehitu du eta horrek nagusiki gidatu behar duela NUKFren jarduna.

Ondoren, gai-zerrendari heldu zaio.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren aktaren onespena

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak irailaren 10ean egin zen Batzorde Betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Bilkurara joandakoen oniritziarekin,

ERABAKI DA:

2019ko irailaren 10ean egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.

Azken Batzorde Betearazletik egindako Batzorde eta Kontseiluei buruzko informazioa eman aurretik, Idazkari Nagusiak azaldu du Batzorde Betearazle guztietan egonen den gai-zerrendako puntu honetan Batzordeak nola egin ohi duen arinagoa izateko.

Azaldu duenez, Batzorde eta Kontseilu bakoitzean izendatutako ordezkariak bertan jorrotutako gai garrantzitsuenen laburpena bidal dezakete, laburpen hori Batzorde Betearazle bakoitzaren deialdiarekin batera igorria izan dadin.

Ondoren, azken Batzorde Betearazletik egindako Batzorde eta Kontseiluen inguruko informazioa eman da:

- Nafarroako Erroldatze Kontseilua (2019/09/25). Bertan, udalek udal-erroldan ofizioz tramitatu dituzten baja espedienteen berri eman da, kontseilu honen zereginetako bat den heinean.
- Iruzurraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko lan iraunkorreko Batzordea (2019/09/30). NUPek Nafarroako iruzur indizeari buruz egindako txosten baten berri eman zen.
- Nafarroako Gardentasun Kontseilua (2019/10/10). Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta toki entitateek Gardentasunari buruzko Foru Legea errazago bete ahal izateko gida onetsi zen.

ERABAKI DA:

Horretaz jabetzea.

3. PUNTUA. NUKFren Batzorde Betearazlearen saioen periodikotasuna.

Lehendakariak NUKFren Batzorde Betearazlearen ohiko saioen periodikotasuna aurkeztu du. Bilkurak hilabeteko bigarren asteartean egitea proposatu du salbu eta zergati arrazoituagatik beste egun batean egin behar denean.

Hain zuzen ere, zehaztu duenez, azaroko bilkura bigarren asteartean egin beharrean, 19an egingen da abenduaren 13ko Batzar Nagusirako deialdia onetsi ahal izateko.

Batzarraren onespenera jarrita,

Aho batez,

ERABAKI DA:

Batzorde Betearazlearen ohiko saioak hilabetearen bigarren asteartean egitea, 16:30ean lehenengo deialdian, eta 17:00etan bigarren deialdian, salbu eta arrazoitutako zergatiak direla eta eguna aldatu behar denean.

4. PUNTUA. Ordezkariek izendatzea kontseilu eta batzordeetarako.

Lehendakariak deialdiarekin batera igorritako ordezkarien izendatze-proposamena aurkeztu du.

Adierazi duenez, Batzorde askotan aurreko legegintzaldiko osaketa mantendu da. Zehaztu duenez, ahal izan den neurrian alderdi eta lurralde guztietako ordezkariak mantentzeko ahalegina egin da, batez ere Toki Araubideko Foru Batzordean.

Era berean, zehaztu du ohikoena Batzorde Betearazleko kidea izendatzea dela baina batzuetan Batzordearen berezitasunagatik arlo bateko zinegotziren edo teknikariren bat izendatu daitekeela dagokion entitatearen ordezkariak hala proposatzen badu.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei.

Fabo jaunak, lehenengo lehendakariordeak, galdetu du zergatik ez dagoen Tuterako Udala Polizien Kontseiluan, Kulturako Foroan ezta Kirol instalazio eta ekipamenduen Batzordean ere.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, galdetu du zergatik ez dagoen Erriberako Mankomunitateko lehendakaria Hondakinen Kudeaketa Planaren Jarraipen Batzordean hondakin gehien sortzen dituen entitatea izanik.

Ferrer jaunak, entitate horretako lehendakariak, erabakia birpentsatzeko eskatu du.

Idazkari Nagusiak azaldu du Polizien Foru Lege berriari jarraiki, Nafarroako Polizien Kontseiluak lau ordezkari eduki beharrean, toki entitateetako hiru ordezkari dituela eta bat Iruñeko Udalari dagokiola.

Kulturako Foroari dagokionez azaldu da joan den legegintzaldiko amaieran sortu zela eta osaketa mantendu dela lehendakaria eta bi lehendakariordeak foroaren kide gisa izendatuz. Adierazi denez, Urdaingo ordezkaria foroaren kide izendatzeari dagokionez, komeni da toki entitate txikien ordezkariak foroan egotea entitate horientzako programa zehatzak proposatu ahal izateko. Era berean, foroaren kide dira ere bai, besteak beste, NUKFko bi teknikari eta kulturako hiru udal-teknikari.

Hiru horien inguruan azaldu denez, agian Agoizko teknikariaren ordezkoa bilatu beharko da Nafarroako Gobernuko zerbitzuetan lan egitera igaroko delako.

Egoera hori emango balitz, Tuterako Udaleko teknikaria foroan sartzeko aukera proposatu da.

Oroz jaunak, NUKFko bigarren lehendakariordeak, Irurtzango ordezkaria izendatzea proposatu du Hezkuntzaren itunen eta dirulaguntzen Batzorderako.

Bestalde, Hondakinen Planaren Jarraipen Batzordearen izendapenaren inguruan adierazi du izendapen hori Hondakinen Plana osatzean pertsona horrek egindako lanarengatik etorri dela.

Toquero jaunaren iritziz, Erriberako Mankomunitateak Batzorde horretan egoteko zilegitasun handiagoa du.

Segura andreak, Alesbesko alkateak, eskatu du ahal izanez gero, Erriberako Mankomunitateko ordezkaria Batzorde horretan entzule gisa sartzeko, bere ustez, mankomunitateetako ordezkariak gisa horretako batzordeetan egon beharko lukete haiengan eragina duten gaiak direlako.

Fabo jaunak, lehendakariorde lehenengoak, eskatu du Eskola-kontseiluan eta itunen eta dirulaguntzen Batzordean ordezkari gisa edukitzea. Horrekin batera, bere parte-hartzea eta Kasedako ordezkariarena eskatu du Basogintzako Aholkularitza Kontseiluan eta Kasedako ordezkariaren parte-hartzea PEFC Basogintzaren Ziurtapen Elkartearen.

Segura jaunak Egurraren mahaian parte-hartzea eskatu du.

Lehendakariak ohartarazi du oraindik Batzorde batzuetarako izendapen-proposamenak falta direla.

Ondorengo izendapenak eskatu dira: Basaburuako ordezkariarena Nafarroako Eskola-kontseilurako eta Eskolatzearen Batzorde Nagusirako, Leitzako ordezkariarena Basogintzaren Ziurtapen Elkarterako eta

Izarbeibarko Mankomunitatearen ordezkariarena Kontsumoaren Nafarroako Kontsumoaren Kontseilurako.

Lehendakariak hartu du hitza eta adierazi du izendapen-proposamenak bozkatu baino lehen, Itunen eta dirulaguntzen Batzordean bi pertsonak adierazi dutela bertan parte-hartzeko nahia eta Batzorde horrek ordezkari bakarra duenez, zein ordezkari izendatuko den erabaki behar da.

Horretarako, bozkatu egin da eta emaitza ondorengo izan da: Hamasei boto Irurtzungo ordezkariaren alde, zortzi boto Martzillako ordezkariaren alde eta abstentzio bat.

Hortaz, Irurtzungo ordezkaria proposatu da Batzorde horretako kide gisa.

Ondoren, batzorde eta kontseiluetarako ordezkarien izendapenen proposamen osoa bozkatu da.

Aldeko hamasei botorekin eta kontrako zortzirekin,

Gehiengoz,

ERABAKI DA:

Ondorengo Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkarien izendapenak onestea:

Toki Araubideko Foru Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Ánder Oroz Casimiro	Antsoingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
Enrique Maya Miranda	Iruñeko alkatea
Ángel Unzue Ayanz	Agoizko alkatea
Manuel Romero Pardo	Aranguren Ibarreko alkatea
Mikel Landabere Villanueva	Aurizberriko Kontzejuko burua
Yolanda González García	Vianako alkatea (entzule gisa)
Lurralde Mugaketako Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Jesús Arrizubieta Astiz	Tafallako alkatea
Yolanda González García	Vianako alkatea
David Álvarez Yanguas	Castejongo alkatea
Udalerrietako mugak berraztertze lan taldea	
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria
NILSAren Administrazio Kontseilua	

Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Ander Oroz Casimiro	Antsoaingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia
Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa	
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria.
Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea
Ander Oroz Casimiro	Antsoaingo alkatea
Raúl Maiza González	Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado	Cintruénigoko alkatea
David Álvarez Yanguas	Castejongo alkatea
Enrique Maya Miranda	Iruñeko alkatea
Alejandro Toquero Gil	Tuterako alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz	Tafallako alkatea
Lucía Echegoyen Ojer	Zangozako alkatea
Gonzalo Fuentes Urriza	Lizarrako alkatea
Nafarroako Polizien Kontseilua	
David Álvarez Yanguas	Castejongo alkatea
Jesús Arrizubieta Astiz	Tafallako alkatea
Enrique Maya Miranda	Iruñeko alkatea
Nafarroako Segurtasun Eskolaren Zuzendaritza Kontseilua	
Alejandro Toquero Gil	Tuterako alkatea
Nafarroako Segurtasun Eskolaren Prestakuntza Batzordea	
Alejandro Toquero Gil	Tuterako alkatea
Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Juan Jesús Echaide Baigorri	NUFKko teknikaria.
Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea (ordezkoa).
Iruzzurraren eta Ezkutuko Ekonomiaren Kontra Borrokatzeko lan iraunkorreko batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria (ordezkoa)
SITNA koordinatzeko Batzordea	
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria.

Kontratazio Publikoaren Batzordea	
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia
Gonzalo Pérez Remondegui	Iruñeko Udaleko Aholkulari Juridikoa
Nafarroako Immigrazio Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Raúl Maiza González	Berriozarko alkatea (ordezkoa).
Nafarroako Eskola Kontseilua	
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe	Basaburuako alkatea
Eskolatzearen Batzorde Nagusia	
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe	Basaburuako alkatea
Lanbide Heziketaren Nafarroako Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Berta Enrique Cornago	Idazkari nagusia (ordezkoa)
Hezkuntzaren itunen eta diru-laguntzen Batzordea.	
Aitor Larraza Carrera	Irurtzungo alkatea
Nafarroako Euskararen Kontseilua	
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe	Basaburuako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendia	Leitzako alkatea (ordezkoa)
Nafarroako Osasun Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
M ^a Carmen Segura Moreno	Alesbesko alkatea
Pedro José Soto Eguren	Gesalazko alkatea
Osasuneko Departamentu arteko Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuen Gobernu Kontseilua	
M ^a Carmen Segura Moreno	Alesbesko alkatea
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe	Basaburuako alkatea
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Gobernu Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Ander Oroz Casimiro	Antsoaingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
Tuterako barrutiko Osasun Kontseilua	
David Álvarez Yanguas	Castejongo alkatea
Alejandro Toquero Gil	Tuterako alkatea
Nafarroako Ingurumen Kontseilua	
Raúl Maiza González	Berriozarko alkatea

Sabina García Olmedo	Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria (ordezkoa)
Klimaren eta energiaren aldeko itun bat Nafarroara egokitua prestatzeko alkateen lan taldea	
Juan Jesús Echaide Baigorri	NUFKko teknikaria.
Oihangintzako Aholku Kontseilua	
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Jesús Esparza Iriarte	Kasedako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendía	Leitzako alkatea
2017-2027ko Nafarroako Hondakinen Planaren Jarraipen Batzordea	
David Oroz Alonso	Urdiaingo alkatea
Fernando Ferrer Molina	Erriberako Mankomunitateko lehendakaria
Landa garapenerako 2014-2020 programaren jarraipen batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria (ordezkoa)
Navarra FEDER Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria (ordezkoa)
Landa garapenerako 2014-2020 programaren barruan parte hartzen duten toki ekintzarako taldeak eta lan garapenerako estrategiak hautatzeko batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria (ordezkoa)
NELS Sarea Koordinatzeko Batzordea	
Juan Jesús Echaide Baigorri	NUFKko teknikaria.
Nafarroako Egurraren Mahaia	
Mari Carmen Segura Moreno	Alesbesko alkatea
PEFC Basogintzaren Ziurtapen Elkarte	
Jesús Esparza Iriarte	Kasedako alkatea
Garapen Lankidetzarako Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Juan Jesús Echaide Baigorri	NUFKko teknikaria (ordezkoa)
Nafarroako Ongizatearen Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Óscar Bea Trincado	Cintruéniogoko alkatea
Yolanda González García	Vianako alkatea
Nafarroako Desgaitasun Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Berta Enrique Cornago	NUFKko Idazkari Nagusia (ordezkoa)
Administrazio arteko Inklusio Plana	

Yolanda González García	Vianako alkatea
Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua	
Yolanda González García	Vianako alkatea
Sabina García Olmedo	Izarbeibarko Mankomunitateko Lehendakaria (ordezkoa)
Emakumeen kontrako indarkerian arreta eta prebentzioa eraginkortasunez koordinatzeko jarraipen batzordea	
Sabina García Olmedo	Izarbeibarko Mankomunitateko Lehendakaria
Emakumeen kontrako indarkerian arreta eta prebentzioa benetan koordinatzeko instituzioen arteko akordioaren batzorde iraunkorra	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Nafarroako Adingabearen Kontseilua	
Raúl Maiza González	Berriozarko alkatea
Ángel Unzue Ayanz	Agoizko alkatea
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Mikel Zabaleta Aramendia	Leitzako alkatea
Arreta Goiztiarraren administrazio arteko Batzorde Teknikoa	
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Nafarroako Adinekoen Kontseilua	
Pedro José Soto Eguren	Gesalazko alkatea
Mikel Landabere Villanueva	Aurizberriko Kontzejuko burua
Nafarroako Ijitoei Arreta emateko I. Plan Integralaren jarraipen batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Yolanda González García	Vianako alkatea
Kirol Instalazio eta Ekipamenduen Segurtasun Batzordea	
Manolo Romero Pardo	Aranguren Ibarreko alkatea
Oihan Mendo Goñi	Garesko alkatea
Nafarroako Kirolaren Kontseilua	
Oihan Mendo Goñi	Garesko alkatea
Nafarroako XXXIII. Kirol Jokoak antolatzeko batzordea	
Pablo Bolea Goñi	Tafallako Udaleko kirol arloko teknikaria
Miguel Indurain Fundazioaren Patronatua.	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoingo alkatea, NUKFko lehendakaria
Gizabide Batzordea	
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria.
Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua	
Sabina García Olmedo	Izarbeibarko Mankomunitatea
	(ordezkoa)
Nafarroako Turismo Kontseilua	

Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
M ^a Carmen Segura Moreno	Alesbesko alkatea (ordezkoa)
Nafarroako Taxien Kontseilua	
Manolo Romero Pardo	Aranguren Ibarreko alkatea
Ander Oroz Casimiro	Antsoaingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea (ordezkoa).
Lurraldea Antolatzeako Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Ander Oroz Casimiro	Antsoaingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
Cristina Recalde Vallejo	Artikako Kontzejuko lehendakaria
Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Etxegabetzei buruzko arreta batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Enrique Maya Miranda	Iruñeko alkatea
Alejandro Toquero Gil	Tuterako alkatea
Nafarroako Merkataritza Kontseilua	
Enrique Maya Miranda	Iruñeko alkatea
Jesús Arrizubieta Astiz	Tafallako alkatea
Nafarroako Bideozaintzarako Bermeen Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia (ordezkoa)
Erroldatze Kontseiluaren Probintzia Atala (INE)	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Manolo Romero Pardo	Aranguren Ibarreko alkatea (ordezkoa)
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria (ordezkoa)
EUPFren Lurralde Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Ander Oroz Casimiro	Antsoaingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
Elikagaiak esleitzeko eta banatzeko batzordea (Elikagaien Bankua Fundazioa)	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Memoria Historikoaren arloan Koordinatzeko Batzordea	
David Álvarez Yanguas	Castejongo alkatea

Nafarroako Boluntarioen Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
IRUÑA	Iruñeko Udaleko alkatea edo Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzi ordezkoa
Tutera	Tuterako Udaleko alkatea edo Gizarte Gaietarako zinegotzia
Europako ekintza batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Nafarroako Gardentasun Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia
Babestutako Enplegua Sostengatzeko Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Lurralde Garapen Jasangarriaren Lan Batzordea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Juan Jesús Echaide Baigorri	NUFKko teknikaria (ordezkoa)
Nafarroako Etxebizitza Kontseilua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerriak koordinatzeko Forua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia
Juan Jesús Echaide Baigorri	NUFKko teknikaria.
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Ander Oroz Casimiro	Antsoingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
David Oroz Alonso	Urdiaingo alkatea
Marisol Martínez Caspe	Agoizko Udaleko Kultura teknikaria
Javier Paz	Azagrako Udaleko kultura teknikaria
Raúl Iglesias Álvarez	Berako Udaleko kultura teknikaria
Nafarroako Garraioaren Kontseilua.	
Manolo Romero Pardo	Aranguren Ibarreko alkatea
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia (ordezkoa)
Udalerrietako mugak berraztertze lan taldea	
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria.
Nafarroako LGTBI+ Kontseilua	
Ander Oroz Casimiro	Antsoingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
David Álvarez Yanguas	Castejongo alkatea
Euskararen Plan Estrategikoa, mahai teknikoa: politika publikoak	
Esther Lacasta Pérez Ilzarbe	Basaburuako alkatea

Euskararen Plan Estrategikoa, mahai teknikoa: euskararen ezagutza handiko eta erabilera orokortuko eremuak	
Mikel Zabaleta Aramendía	Leitzako alkatea
Nafarroako Aireportua Koordinatzeko Batzardea	
	Iruña
	Noain (Elortzibar)
	Uharte

Geserlocal sozietate mugatua	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Ander Oroz Casimiro	Antsoaingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia
Fermín Cabasés Hita	NUFKko teknikaria.
Juan Jesús Echaide Baigorri	NUFKko teknikaria.
NUKFko Lankidetzarako Batzardea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Mario Fabo Calero	Martzillako alkatea, NUKFko 1. lehendakariordea
Aitor Larraza Carrera	Irurtzungo alkatea
David Álvarez Yanguas	Castejongo alkatea
Hiri eremuak berreskuratzeko deialdiaren batzardea, hitzarmena Caixa CAN Fundazioa-NUKF	
Mikel Landabere Villanueva	Aurizberriko Kontzejuko burua
Itziar Semberoiz Garralda	Espartza Zaraitzuko alkatea
Animsako administrazio kontseilua	
Ander Oroz Casimiro	Antsoaingo alkatea, NUKFko 2. lehendakariordea
Ogasunarekin sinatutako hitzarmenaren jarraipen batzardea	
Juan Carlos Castillo Ezpeleta	Azkoiengo alkatea, NUKFko lehendakaria
Berta Enrique Cornago	NUKFko Idazkari Nagusia

5. PUNTUA. Garapenerako lankidetzaz

Lehendakariak hitza eman dio Juan Jesús Echaide Lankidetzarako Funtsaren teknikari arduradunari honek azal dezan Funtsa zer den, egiten diren jarduketak eta Batzarde Betearazlearen iritzia jaso beharko duen proposamena.

2019-2020 epealdirako garapenerako lankidetzan proposatzen diren jarduketei dagokienez, teknikariak lehendabizi urteko deialdiaren ebazpen-proposamena azaldu du aurkeztutako proiektuen errepeoa eginez eta hautatutako hamaika proiektuak azalduz. Hamar proiektu hautatu dira puntu gehien lortu dutenak izan direlako eta hamaikagarrena, ANARASD entitateak aurkeztutakoa, Saharar Ordezkaritzarekin izenpetutako hitzarmenaren barruan kokatzen delako.

Teknikariak azaldu duen proposamen horrek aurreikusten duenaren arabera, lankidetzarako funtsak toki entitateen diru-sarrera berriak jasoz gero, puntuen arabera zerrendako hurrengo proiektuak hautatuko dira eta 2020ko lehenengo hiruhilekoan deialdi berria egingo da.

Era berean adierazi du, proposatzen den bigarren jarduketa dela 2020an urteko hitzarmen berria izenpetzea orain arteko baldintza berdintsuekin Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin.

Proposatzen den hirugarren jarduketa, berriz, hauxe da: lehendakariari baimena ematea, 2020-2022 epealdirako hiru urteko proiektua finantzatzeko deialdia bultzatzeko aukera hausnar dezan, betiere, lankidetzako deialdiak egiten dituzten toki entitateekin elkarlanean eta dagokion hitzarmena sinatuz.

Batzordearen onespenera jarrita,

Mendo jauna Garesko alkatearen, abstentzioarekin,

ERABAKI DA:

Lankidetzari dagozkion 2019-2020 epealdirako proposatutako jarduketak onestea ondorengo baldintzetan:

LEHENBIZIKOA. Urteko deialdiari dagokionez, puntu gehien lortu dituzten 10 proiektuak finantzatzea baita ANARASD entitateak aurkeztutakoa ere Saharar ordezkariarekin izenpetutako hitzarmenaren barruan. Toki entitateen diru-sarrera berriak jasoz gero, finantzaketa handitzea proiektu bati edo gehiagori lortutako puntuen arabera ordenean hautatuz eta 2020ko lehen hiruhilekoan urteko deialdi berri bat egitea.

BIGARRENA. 2020an urteko hitzarmen berria izenpetzea baldintza beretsuekin Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin.

HIRUGARRENA. Lehendakariari baimena ematea, 2020-2022 epealdirako hiru urteko proiektua finantzatzeko deialdia bultzatzeko aukera hausnar dezan, betiere, lankidetzako deialdiak egiten dituzten toki entitateekin elkarlanean eta dagokion hitzarmena sinatuz eta dagoeneko aurreko zenbait legegintzalditan egin diren hiru esperientzietako baldintza berdintsuetan.

6. PUNTUA. Lehendakariaren informazioa

Lehendakariak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Egindako eta aurreikusitako bilera instituzionalak. Lehenengoa, Parlamentuko Lehendakariarekin izandakoa. Bertan, bi entitateek demokraziaren 40. urteurrena abenduaren

4an egingen den ekitaldiarekin elkarrekin ospatzea adostu zuten. Era berean, bi entitateek eta Lurraldearen Kohesiorako Departamentuak despopulazioari buruzko jardunaldiak antolatzen proposamena egin zuten. Bigarrena, Kontuen Ganberaren lehendakariarekin izandako bilera. Bertan, bi entitateek lankidetzan landu ditzaketen gaiak adierazi dituzte.

- Nekazaritza eta abeltzantzako Zuzendari Nagusiarekin izandako bilera, Animaliak Babesteko Foru Lege berria martxan jartzeko elkarlanean aritzeari buruzkoa, eta Barne Kontseilari zein Zuzendari Nagusiarekin eta Toki Administrazioaren Zuzendari Nagusiarekin izandako bilera. Bi bileretan toki entitateekin batera lehentasunez landu beharreko gaiak adierazi zaizkio Federazioari. Gaiak ondorengoak dira: nor bere burua babesteko planak eta larrialdi planak, jokoaren gaia eta ikuskizun publikoena. Adierazi denez, gai horietako bakoitza lantzeko hiru lantalde abiatzeko asmoa dago eta hala nahi duten Batzorde Betearazleko kideek horietan parte har dezakete. Horretarako, NUKFra posta elektronikoa bidali beharko dute, ahalik eta lasterren, lantalde horietan parte-hartzeko nahia adierazita.
- Toki Araubideko Foru Batzordearen aurrean aurkeztu beharko diren xedapen arauemaileak: Gizarte Zerbitzuak Finantzatzeko Foru Dekretuaren proiektua eta Funtsari eta Inbertsio Planari buruzko Foru Legea.

Lehendakariak Funtsari buruzko Legearen inguruan azaldu duenez, Toki Administrazioa Zuzendari Nagusiarekin bilera bat egin da. Bertan, kopuruaren 3,08ko igoeraren berri eman da (KPI gehi bi puntu gehi 0,8ko zuzkidura montepioen defizita konpentsatzeko). Banaketa egiteko moduari dagokionez, bi bide proposatu dira: bermea KPIarekin eguneratzea ala KPIa gehi birekin eguneratzea. Horren inguruko erabakia NUKFk hartu beharko du.

Romero jauna Aranguren Ibarreko alkateak hartu du hitza esanez beste behin ere agerian gelditu dela Funtsaren Legeak dakarren arazoa. Romero jaunak uste du toki entitateen artean zerbitzuak emateari dagokionez ezberdintasun handia dagoela kostuei, hobekuntzei eta ahalegin fiskalari begiratuta. Bere ustez, nahikoa izango litzateke bermea KPIaren arabera igotzea eta gainontzeko %2a banaketarako uztea.

Lehendakaria ere bat datorrela dio, udal askorentzat formula ez aplikatzeak izugarriko galera dakarrelako.

Alvarez jauna Castejongo alkateak adierazi du Toki Administrazioa Berrantolatzen Foru Legearen jarraipenari buruzko negoziazioa azkartu beharra dagoela, banaketa bidezkoa eta zuzena bilatu, Hiriburutza Agiriak berrikusi etab. Bere ustez, udal eskumenak definituta egotea behar dute eta hori transferentzietan islatu beharko da. Bien bitartean, esan du banaketa bidezkoa eta zuzena bilatu behar dela baina aipatu helburua ahaztu gabe. Inbertsioen Planarekin lotuta Alvarez jaunak adierazi du plana luzatu behar bada (eta berak beharrezkoa ikusten du indarrean dagoen planaren kargura obrak egin ahal izateko), ados dagoela baina jakin beharra dagoela plan berri bat egiteko zer aurreikuspen dagoen.

- Brañoseran izandako jardunaldietan egonaldia, udal demokratikoen 40 urteak ospatzeko.
- Kultur ondasunen kontserbatzaile-zaharbertzaileen elkarte profesionalak egindako eskaera, NUKFko organoei helaraztekoa, haien lanbidean gertatzen ari den intrusismoa azaleratzeari buruzkoa eta kultur ondasunak kontserbatzeko eta zaharbertzetzeko lanak egiteko beharrezkoak diren titulazio eta kualifikazioak zehazteari buruzkoa.

ERABAKI DA

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

7. PUNTUA.- Galde-eskeak

Alvarez jauna Castejongo alkateak eskatu du Batzorde sektorialen behin betiko osaketa bidal diezaioten eta bere nahia adierazi du Animaliak babesteko Foru Legearekin lotutako lantaldean parte hartzeko.

Ferrer jauna Erriberako Mankomunitateko lehendakariak ere adierazi du lantalde horretan parte hartzeko nahia.

Alvarez jaunak bere haserrea adierazi du eta Batzorde Betearazleari eskatu dio ez onartzeko Ogasuneko Kontseilariak 2018ko ekitaldiko superabita zorra amortizatzen erabiltzeko egindako proposamena. Aitzitik, superabit hori gastu sozialetarako eta lehenengo beharrekiko zerbitzuetarako bideratzea eskatu du diru hori Nafartar guztiona delako. Eta, horregatik, jendearen lehentasunezko beharretarako eta ez bankaren beharretarako bideratu beharko litzatekela adierazi du.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemeretzia eta hamabost minutu direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.